

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako udalerrian kokatutako txikizkako saltokiekin, turismoarekin, ostalaritzarekin, zerbitzuekin eta industriarekin zerikusia duten enpresa txikiak jartzea sustatzeko dirulaguntzak

BDNS (Identif.): 856210.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/856210>.

Iruña Okako Udalbatzaren 2025eko irailaren 8ko Erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, dirulaguntzen deialdi publikoa egiten da Iruña Okako udalerrian kokatutako txikizkako saltokiekin, turismoarekin, ostalaritzarekin, zerbitzuekin eta industriarekin zerikusia duten enpresa txikiak jartzea sustatzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorri, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>:

Lehenengoa. Onuradunak

1. Betekizunak:

Iruña Okako udalerrian jarduera ekonomiko edo enpresariaren bat duten eta garatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek jaso ahal izango dituzte mota horretako laguntzak, baldin eta, ordenantzaren eta deialdi honen arabera, dirulaguntza ematea eragin duen jarduera egiten badute eta honako betekizun orokor hauek betetzen badituzte:

Egunean izatea Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak.

Egunean izatea Iruña Okako Udalarekiko betebeharrak.

Dagozkion udal lizentziak izatea edo, bestela, horiek lortzeko prozedura hasteko eskatu izana edo dagokion aurretiazko komunikazioa aurkeztu izana.

Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren desgaitasun egoeretan.

Enpresa jarduera hastea eta, ondorioz, lantoki bat irekitzea edo lehen lantokia irekitzea Iruña Okako udalerrian, diruz lagundu daitekeen aldi. Horretarako, jarduerari edo establezimenduari JEZeant alta emandako data hartuko da kontuan.

Kontzeptu horretan sartzen dira negozio eskualdaketak eta enpresen oinordetak, baina ez izenaren edo forma juridikoaren aldaketak, egoitzaren lekualdaketak, jardueraren aldaketak edo handitzeak edo negozio lerro berriak irekitzea enpresa beraren barruan.

Banakako enpresaburuak ezin izan dira alta emanda egon jarduera berean, dirulaguntza eskatu den alta dataren aurreko 3 urteetan. Enpresa bat izanez gero, hautatutako forma juridikoa edozein dela ere, enpresa osatzen duten bazkideek ezin izango dute alta emanda egon altaren aurreko 3 urteetan jarduera berean. Edozein kasutan ere, banakako enpresaburua izan edo ez,

Gizarte Segurantzaren alta emateko betebeharretik salbuetsita egongo dira baldin eta aldez aurretik araubide horretan altan emanda badaude horretara behartzen dituen beste jarduera bat egiteagatik.

Iruña Okako udalerrian gutxienez bi urte lehenagotik erroldatuta egotea, banakako enpresaburuentzat. Zenbait bazkidek eratzten badute enpresa, gutxienez horietako batek eraman beharko du urte bi baino gehiago erroldatuta Iruña Okan, aurreikusitako dirulaguntzaren gehienekoa jasotzeko aukera izateko.

2. Bazterketak.

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso:

Iruña Okako udalerrian jarduerari zuzenean atxikitako lokalik ez duten enpresak. Jarduerari zuzenean atxikitako lokaltzat hartzen da onuradunak bere jarduera nagusia egiten duen lokala.

Jardueraren titularraren ohiko etxebizitzan edo, merkataritza enpresen kasuan, bazkideren baten ohiko etxebizitzan diharduten enpresak.

49/2002 Legearen 2. artikuluko irabazteko xederik gabeko elkarteak, fundazioak edo beste edozein erakunde edo entitate.

Administrazio publikoen edo haien erakunde autonomoen partaidetza partziala edo erabatekoa duten enpresak.

Bigarrena. Xedea

Deialdiaren xede da Iruña Okako udalerrian txikizkako saltokiekin, turismoarekin, ostalari-tzarekin, zerbitzuekin eta industriarekin zerikusia duten enpresa txikiak jartzea sustatzeko itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak emateko irizpideak zehaztea eta prozedura arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako udalbatzak 2025eko irailaren 8ko erabaki baten bidez onetsi zituen. Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Sistema Nazionalean argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kontsultatu oinarri arauen hirugarren klausula.

Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea

Eskerak aurkezteko epea oinarrien deialdiaren laburpena Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta irekita egongo da aurrekontu esleipena agortu arte edo, bestela, 2025eko abenduaren 15era arte.

Iruña Oka, 2025eko irailaren 8a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ